

BALIOZKO PROPOSAMENA

Gure gizarteak animaliekiko duen jarrerak gure balioak eta kontzientzia soziala islatzen ditu. Egutero, animalia askok abandonua, tratu txarra edo zaintza falta pairatzen dute, eta egoera horrek ondorio larriak ditu bai haien osasun fisikoan bai emozionalean. Animalia hauek ezin dute beren burua defendatu, eta askotan, gizartearen axolagabekeriaren biktima bihurtzen dira.

Animalien abandonua gero eta arazo zabalagoa da, eta gure inguruan ere nabarmena da. Txakur eta katu askok kalean amaitzen dute, elikadura egokirik gabe, osasun-arazorik tratatu gabe eta babes emozionalik gabe. Egoera honek ez die soilik animaliei eragiten, baizik eta gizarte osoari, abandonuak arazo etiko, sanitario eta sozialak sortzen baititu.

Arazo honen aurrean, animalia abandonatuentzako batzordea sortzea beharrezkoa ikusten dugu. Babesbizi-proiektuaren helburua animalia abandonatuei bigarren aukera bat ematea da, haien bizi-kalitatea hobetuz eta adopzio arduratsua sustatuz. Gure ekimena ez da soilik animalien harrera eta adopzioan oinarritzen, baizik eta arazoa erroetatik lantzen duen proiektu integrala da.

Babesbizi-ren bidez, animalien oinarritzko beharrak asetzea bilatzen dugu: elikadura, osasun-zaintza eta segurtasuna. Horretarako, albaitaritza-zerbitzuak eskainiko ditugu, animalien osasuna bermatzeko, eta mikrotxipen bidez identifikazioa egingo dugu, abandonua saihesteko. Era berean, behin-behineko etxeen sare bat sortuko dugu, animaliek adopzioa lortu arte ingurune seguru eta egonkor batean bizi ahal izateko.



Adopzio-prozesua proiektuaren ardatz nagusietako bat da. Animalia bakoitzarentzat familia egokiena bilatuko dugu, adopzio arduratsua sustatuz eta familiei orientazioa eskainiz. Modu honetan, adopzioak arrakastatsuak izatea eta animalien ongizatea epe luzera bermatzea lortu nahi dugu.

Horrez gain, heziketa eta sentsibilizazioa funtsezkoak direla uste dugu. Horregatik, heziketa-programak, hitzaldiak eta tailerrak antolatuko ditugu komunitatean, animalien abandonuaren ondorioak ezagutarazteko eta animaliekiko errespetua sustatzeko. Ekintza hauek gizarte kontzienteago eta arduratsuago bat sortzeko bidean lagungarri izango dira.

Babesbizi-ren bereizgarritasuna komunitatearen inplikazioan eta lan egiteko moduan dago. Ez dugu animalien arazoa modu isolatuan lantzen, baizik eta sare baten bidez: boluntarioak, familiak,

albaitariak eta erakundeak elkarlanean arituz. Horrela, animalien ongizatea hobetzeaz gain, gizakiaren eta animalien arteko harremana sendotzen da.

Momentuz, animalien abandonua erabat desagerraraziko duen irtenbiderik ez dago, baina gure proiektuaren bidez egoera hau malgutzea eta animalien bizi-kalitatea nabarmen hobetzea posible dela uste dugu. Babesbizi-k animalientzat zein familientzat onurak sortzen ditu, eta komunitate osoarentzat balio positiboa eskaintzen du.

Hau guztia laburtzeko, ondorengo eskeman lanaren helburuak, bereizgarriak eta sortu nahi duen eragina modu bisualean aurkezten dira.